# OIHANEKO ZÜHAINETAN

Oihaneko zühainetan eder zühainik gorena
Europako popülüetan famatürik euskaldüna
Hura da zaharrena Kantabriaren semea
Lorius bere lürretan beti libre egon dena

Leheneko euskaldünari fama zaio baratü
Fidel zela herriari eta legeetan argitü
Hura izan da gerlari üsü odolak isuri
Fidelitatean etxeki eta legea hareki

Haritx peala bildürik Euskal herri orotarik
Bakotxak bere botza emanik eta legea zen egin
Orai ez da legerik ez eta ere jüntarik
Fidelitatea galdürik eta legea saldürik